

Desarmen nuklearrerantz, negozio ilunei inheska

Errusiako plutonioa berriro ere albiste bilakatu zaigu. Iazko udan legez kanpoko plutonio-trafikoak Errusiako zentral nuklearren egoera plazaratu zuten. Edonoren eskura eta batera kontrolik gabe pilatzen omen diren pluto-



Errusiako Gobernuak iragarri duenez, bertako ikerlariak arma nuklearretako plutonioa erregai bilakatzeko teknologia garatu dute eta aurki izango ei da baliatzeko moduan.

nio-erreserbek negozio ilunetarako aukera aparta eskaintzen dutela zioten garai horretan mendebaldeko ikerlariak. Horri irtenbidea eman nahian, Alemania eta Errusiako Gobernuak

lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten arma nuklearretako plutonioari beste era bateko erabilpena emateko. Lankidetzaz hitzarmenaren lehen emaitzak ezagutzen dira jadanik. Errusiako Gobernuak iragarri duenez, bertako ikerlariak arma nuklearretako plutonioa erregai bilakatzeko teknologia garatu dute eta aurki izango ei da baliatzeko moduan. Errusian eraikiko den lantegi esperimentalean uranio

eta plutonio oxidoa nahasi egingo dute MOX izeneko erregai berria lortzeko. Erregaiaren konposizioa aztertuta, plutonioaren erabilera handia izango dela baieztatu daiteke. Bide honetatik, izan ere, Errusiako Gobernuak biltegietan duen plutonioa erabilpen zibiletara bideratzerik izango duela uste du. Asmoak asmo, uranio eta plutonio oxidoak erregai bihurtzea ez da

lan samurra izango. Teknologia egokia erabili behar da eta horretarako Alemaniako Siemens enpresaren laguntza izango dute. Edonola ere, proiektuaren finantziazio-iturriak bilatzea izango da erronkarik inportanteena. Greenpeace erakunde ekologistak salatu duenez, MOX erregaiak ez du plutonio-trafikoaren arazoa saihestuko, eredu komertzialen bidez izkutatu daitezke.

Telemedikuntzarako bidean

Azter daiteke, baina ezin da ukitu. Telemedikuntzaren oztoporik handienetakoa izango da. Ez, ordea, bakarra. Telemedikuntza gauzatzeko behar den teknologi maila eskuratuko balitz, akabo medikuarengana joatea. Medikua, izan ere, gaixoa dagoen leku berean egongo litzateke beti. Errealitate birtualaren hastapenetan oinarritzen da Telemedikuntza. Medikuari urrun dagoen pazienteaz aztertzeko aukera emango dio, nahiz eta bien artean kontaktu fisikorik ez izan. Teorikoki, medikuak pazientearen diagnostiko fidagarriak egin ahal izango du satelite-bidez. Hau guztia, jakina, teoria da oraindik. Telemedikuntza ahalbidetarako duen teknologia Georgiako Teknologia Institutuan ikertzen

ari da. Pazientearen eta medikuaren arteko banaketa fisikoa gainditzeko teleukimenezko sistema lantzen ari dira eta begiz jotako epeak betetzekotan, aurten bertan aurkeztu ahal izango dute prototipoa. Urrutiko ukitua ahalbidetarako duen sistemak bi informazio-atal nagusi izango ditu: pazientearen azterketa egiteko behar den sentsore-sistema eta jasotako informazioa medikua dagoen lekura eramango duena. Georgiako ikerlariak ultrasoinuak erabiltzen ari dira urrutiko ukimenaren sentsazioak jasotzeko. Horren berri igorriko duen informazio-sistema, berriz, errealitate birtualaren bidez lortu nahi da. Pazientearen itxura izango duen pantina sortuko dute eta bertan kokatuko dute gaixoak igorritako informazioa jasoko duen hargailua. Iritsitako inputso elektrikoak mugimendu bihurtuko dira honen bidez eta medikuak "ikus" eta aztertu ahal izango ditu pazientearen erreakzioak. Etorkizunerako irtenbideak eskainiko lituzke telemedikuntza-sistema berriak gauzaterik lortuko balitz. Prototipoa merkatura egokitzea lortuko balute ere, izugarri garestia izango litzateke sistema berria erabiltzea. Oraingoz, medikuarengana joaten jarraitu behar dugu.

